



UDALBILTZAKO PARTZUERGOKO EZ-OHIKO KONTSEILU NAGUSIA

2017ko IRAILAREN 22an BURUTUTAKO BATZARRA:

LABURPENA

- 1.- Aurreko Kontseilu Nagusiko akta onartu da bilkura honen lehenengo puntuan.
- 2.- Udalbiltzan Bagabiltzari buruz udaran egindako bilerek emandakoa eta udazkeneko Batzar Orokorrerako planteamendua azaldu dira bigarren puntuan.
- 2.- 2018 urterako kuota sistema erabaki da hirugarren puntuan.
- 3.- Batzorde Eragileko kideak hautatu dira laugarren puntuan.
- 4.- Gipuzkoako Foru Aldundiari ordaindu beharreko diruaren inguruko azken berriak eman dira bosgarren puntuan.
- 5.- Catalunyako Erreferendumaren harira partzuergotik antolatutakoak zehaztu dira seigarren puntuan.
- 6.- Herriko Etxeak partzuergoan sartzeko prozesuaren azken berriak eman dira zazpigarren puntuan.
- 7.- Pirinioetan Lan eta Bizi programaren itxierari buruzko informazioa eman da zazpigarren puntuan.

=====



UDALBILTZA PARTZUERGOAREN KONTSEILU NAGUSIAREN BATZARRALDIKO AKTA

Oiartzungo Udalean, bi mila eta hamazazpiko irailaren 22an, arratsaldeko 5'15ak direnean, bildu dira bigarren deialdian, ondoren zerrendatzen diren udaletako ordezkariak, zeintzuk alde zuzenetik beren izendapena aurkeztu duten.

Bertaratutako Udalak:

	UDALA	ORDEZKARIA
1	Alegia	Unai Iraola
2	Altzo	Antonio Artola
3	Arakaldo	Jabi Asurmendi
4	Arbizu	Miren Mendinueta
5	Areso	Ur Algero
6	Astigarraga	Andoni Gartzia
7	Atxondo	David Cobos
8	Berastegi	Amaia Azkue
9	Berriatua	Jon Arriola
10	Berrobi	Iñigo Aierza
11	Errigoiti	Aintzane Arrien
12	Getaria	Nika Lertxundi
13	Goizueta	Itsaso Lujanbio



14	Hernani	Luis Intxauspe
15	Larrabetzu	Iñigo Gaztelu
16	Leitza	Mikel Zabaleta
17	Mañaria	Endika Jaio
18	Meñaka	Aitor Ugarte
19	Segura	Eñaut Telleria
20	Usurbil	Alaitz Aizpurua

Ez dira bertaratu ondoko udalak: Aduna, Aizarnazabal, Ajangiz, Amoroto, Anoeta, Antzuola, Araitz, Aramaio, Arantza, Arratzu, Artea, Asteasu, Ataun, Aulesti, Bakaiku, Barrundia, Basaburua, Bera, Dima, Ea, Elduain, Ergoiena, Etxalar, Etxarri-Aranatz, Etxauri, Ezkio, Gatika, Ibarra, Irura, Itsasondo, Iturmendi, Lakuntza, Leaburu, Legutio, Lezo, Lizartza, Markina, Mendaro, Munitibar, Muxika, Oiartzun, Olazti, Ondarroa, Oñati, Oresa, Otxandio, Uharte-Arakil, Urdiain, Zaldibia, Zerain, Zestoa, Ziordia, Ziortza-Bolibar, Zizurkil, Zubieta.

Luis Intxauspe Lehendakari jaunak zuzentzen du bilkura.

Udalbiltzako zuzendari bezala, hitzarekin baina botorik gabe Arantza Ruiz de Larrinagak andereak parte hartuko du.

Udalbiltzako teknikari bezala, Ainara Iraeta andereak hitzarekin baina botorik gabe parte hartuko du.

Parte hartzen du eta ekitaldiaren fede ematen du Udaltzako Partzuergoko idazkaria den Eguzkiñe Aiesa Andres andereak.

Quoruma dagoela ziurtatzean, bilerari hasiera ematen zaio, honako edukiak landuz:



LEHENA.- Aurreko Kontseilu Nagusiko akten onarpena:

Luis Intxauspe lehendakariak egin du puntu honen hasierako azalpena.

Gaia eztabaidagai jartzerakoan, Meñakako ordezkariak lehenbizikoz bertaratu denez akta irakurri ez duela adierazi du. Beste ekarpenik ezean, aurreko bilkurako akta onartua izan da.

BIGARRENA.- Udaltzarian Bagabiltza: Uztailako bileren berri ematea eta urriaren 21eko Batzar Orokorra.

Luis Intxauspe jaunak egin du puntu honen azalpena. Aurreko Kontseilu Nagusian egindako hausnarketaren laburpena eta udarako proposatua zen kronologiaren laburpena egin ditu. Udarako bilera irekiek emandakoaren berri eman du, bileraz bilera.

Ekaineko kontseiluan egitea erabakitako batzar orokorreko lekua lotzeko arazoak zeudela eta, azaroaren 18ra aldatu behar izan da data, larunbatarekin; Iruñeko Antzerki Eskolan izango da. Bertan, Udaltzariaren printzipioak eta lan ildoak eta antolaketa eta funtzionamenduari buruzko lanketa egingo dugula adierazi du.

Gaia eztabaidagai jartzerakoan, ez da hitz hartzerik egon.

HIRUGARRENA.- Kuota sistema:

Andoni Gartzia jaunak egin du puntu honen azalpena. Gai ordenarekin batera bidalitako txostenaren azalpena egin du.



Leitzako ordezkariak, Mikel Zabaleta jaunak, hartu du hitza lehenbizi. Andoni Gartzia jaunarekin hitz egina duen gaia dela adierazi du: Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroako Foru Erkidegoan finantzaketa sistema ezberdinak direnez, sarrera arrunten barruan ere ezberdintasunak daude. Faktore hori ere kontutan hartu beharko litzateke ezarri beharreko kuota sisteman, hots, Nafarroako errealitatea ere kontutan hartzea. Hala, Nafarroako beste eremu batzuetan Udalbiltza indartzeko garrantzitsua litzateke elementu hau. Nafarroan, gainera, egun finantzaketaren inguruko eztabaida dago, ezarritako sistemak herri gehienei balio ez dielako.

Andoni Gartzia jaunak finantzaketa sistemak ezberdinak izan arren, herriz herri aztertutakoan, aztertu ditugun formuletan ezberdintasun handirik ikusten ez dela adierazi du, akaso eskumenak ere ezberdinak direlako.

Leitzako ordezkari jaunak zerga municipal askotan goi-goiko tramotan daudela esanez erantzun du, Nafarroatik proportzionalki askoz gutxiago iristen zaielako. Orain, Tokiko Maparen eztabaidarekin, finantzaketa Nafarroako aurrekontuaren arabera izatea eskatzen ari dira herriak, herritarrengan pisu gutxiago jarri behar izateko. Herriko zergetatik gehiago tiratzeko aukerarik ez dago, topeetan daudelako. Emaizta antzekoa izan arren, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako finantzaketa sistemen arteko aldeak azpimarratu ditu.

Usurbilgo Alaitz Aizpurua andreak dio urteroko kuota kalkulatu ahal izateko, askoz konplikatuagoa dela aurrekontuen arabera sistema.

Andoni Gartzia jaunak hori kapituluka konparatu beharko litzatekeela argitu du. Bere iritziz, aurrekontuen arabera kuota ezartzea litzateke egokiena, baina herri bakoitzaren aurrekontua begiratu beharko litzatekeenez, hori kontrolatzeko eta aurrekontuak egiteko zailtasunak leudeke. Horretaz gain, kontu-hartzaile batzuek datuak errazteko prestutasuna agertuko dute, baina beste batzuek ez. Hala ere, azterketa sakonagoa egin behar bada, egingo dela adierazi du.



Kaltetuenak herri handienak direla ere argitu du: Hernani, Oñati, Oiartzun, Ondarroa, Astigarraga, Usurbil, Lezo... Erronkei aurre egiteko finantzaketan aldaketa beharrezkoa ikusten da; kuoten eguneraketa beharrezkoa da eta, horretaz gain, beste finantziario iturri batzuk lortzeko lan egin beharko da, baina horretarako lanean hasi beharra dago.

Lehendakari jaunak proposamen honekin lanean hasteko malgutasun gehiago izatea bilatzen dela erantsi du.

Usurbilgo ordezkaria den Lehendakari Orde andreak Arbizuko saioan Udaltzaren hasieran Udalak sarrera arrunten %1a ordaintzera iritsi zirela esan zela gogorarazi du. Helburua ez da horretara iristea, baizik eta datua erreferentzia gisa hartzea. Udaltzan Bagabiltza prozesuan finkatutako erronkei aurre egin nahi bazaie, behar beharrezkoa da finantziarioan ere aldaketak egitea, egin beharreko bakarra ez bada ere.

Larrabetzuko ordezkari jaunak esan du hiru euro biztanleko kuota ez duela gaizki ikusten, bere herriaren kaltetan izanda ere.

Getariako ordezkari jaunaren iritziz helburua ahalik eta partzuergokide gehien izatea da, aniztasuna ere ahalik eta gehien bilatuz. Hemendik 2-3 urtera agian zenbateko hauek ez dute balioko, agian egoera aldatu delako. Helburu politikoak jarri behar dira, horren arabera finantzaketa ezartzeko. Idazkariek kontra egingo dute, kontrako txostenak aterako dituzte.

Astigarragako Andoni Gartzia jaunak kuota hauek hurrengo urterako direla argitu du, agian bi urte barru kuota aldatu beharko dela esanez. Udaltzaria partzuergo izanda, erabakia marko egokian hartuz gero kuotak aldatzen baldin badira, idazkariek nahi ez badute ere, juridikoki ezer askorik egin ezingo dutela esan du.



Hernaniko Luis Intxauspe jaunak finantziazio beste bide batzuk ere ireki behar direla esan du. Egun, partzuergokideen kuota da dagoen finantzaketa bakarra, baina beste bide batzuk jarri beharko dira martxan azaroaren 18ko batzar orokorra eta gero: beste erakundeak, diru-laguntzak eta beste.

Astigarragako ordezkari jaunaren iritziz herri berriak erakartzeko jardun politikoa behar da, baina finantzaketarik gabe ezer gutxi egiten ahalko da.

Leitzako ordezkari jaunak Nafarroan presentzia handitzea du helburu eta ikusten du kuoten eguneratzearen beharra. Baina, halere, Nafarroan asko eztabaidatzen ari den gaia izanik, hedapenari begira bertako errealitatea ere kontutan hartzen dela ikusten bada, errazagoa ikusten du Nafarroan hedatzea.

Usurbilgo ordezkari andreak dio erabakia atzeratu daitekeela, baina herrietako aurrekontuak egiten ari direla; beraz, erabakia atzeratuz gero, kontu-hartzaileekin arazoak etor daitezke. Gerora, balorazioa egin beharko da, eta beharrezko aldaketak egin.

Lehendakariak asmoa kuoten erabakia hartzea zela esanez zentratzen du gaia, herrietan aurrekontuak lantzen hasi beharra dagoelako. Egia da Nafarroaz komentatzen dena, hiru agertoki posible daude gaur eztabaidagai, beraz, ahal dela, Kontseilu Nagusi honetatik erabakia hartuta atera beharko genuke, aurrera begira aldaketak egiten badira ere.

Usurbilgo ordezkari andreak dio herri gehiago ez direla kuoten sistemagatik sartuko, edukiengatik baizik: ildoek eta zentzu politikoak erakarriko dituela. Aniztasuna eta jardun politikoa dira bilatu behar direnak eta horretarako gaur egun ez dugun dirua behar da. Saltoa da hemen planteatzen ari dena, baina salto progresiboa beharko litzateke, eta finantzaketak ildo eta helburu politikoen atzetik joan beharko luke progresiboki.



Getariako ordezkari jaunak ere arazoa dirua ez dela uste du, jarduna baizik.

Berastegiko ordezkari andreak bertako Udalean biztanleen araberako kuota ezartzea lehenesten dela aipatu du.

Aresoko ordezkari jaunari Udalbiltza Partzuergoaren finantziazioa handitzeko beharra nabarmena iruditzen zaio. Aurrekontuaren araberako proposamenak zailtasunak dauzkala dio; tramuena agian orekatuena izan daitekeela, baina herrien egoera eta solidaritate printzipioa alde batera gelditzen da proposamen horrekin. Nafarroako Foru Erkidegoa eta Euskal Autonomia Erkidegoaren artean aldeak daude; egiten den proposamena hobekuntza bat da, baina datorren urteari begira, gaurko hiru proposamenen arteko nahasketa jasoko duen lanketa berria egitea beharko litzateke. Sortu daitezkeen egoerak aintzat hartuko dituen sistema ezartzea beharko litzateke.

Berriatuako ordezkari jaunak udaletxe bakoitza ekonomikoki nola dagoen aintzat hartzea ongi ikusten du, baina gainerako udalerriaz gaindiko erakundeek hartzen ez dutela gogorarazten du, oso zaila delako. Hobeki da arazoa izan duen herriari kuota barkatzea, erdira zatitzea edo dena delakoa, kuotaren kalkulu formulaz sartzea baino.

Horretaz gain, biztanleka ordaintzea bere herriaren mesedetan bada ere, herri handiei kalte handia ekar dakieke. Berak tramu berrien alde egingo luke.

Amaitzeko, Nafarroako Foru Erkidegoaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren artean aldeak badaude ere, banaketa administratiboa baino harago doa: Diputazioak, zonaldeak, rekaudazioa...

Leitzako ordezkari jaunak Diputazioek herriei ematen dietena irizpide berdinen araberakoa dela gogorarazten du.

Lehendakari jaunak edozein sistemarekin aldaketa handiena Gipuzkoan gertatzen dela zehazten du, herri handienak Gipuzkoan daudelako. Horrek ez du



kentzen aurrera begira aztertzen jarraitu behar izateko. Euskal Herriko Hirigune Elkargoko herrietarako lanketa sakonagoa egiten ari denez, Nafarroa Garaiko kasuistika ere sakonago aztertzeak merezi dezake.

Astigarragako ordezkari jaunak azaldu du Ipar Euskal Herriko errealitatearekin aldea nabarmena denez, kuota sistema berdina ezar daitekeenik ematen ez duela adierazi du. Aztertzen ari gara eta agian Nafarroa Garaiko egoera ere azter daiteke.

Atxondoko ordezkari jaunak merkatu informazioaren falta adierazi du, informazio zehatzagoa. Nafarroatik soziologikoki eta politikoki sartzeko aukera baldin badago, kuotak eragiten duen ez daki. Helburuak ez luke ekonomikoa izan beharko, politikoa baizik; kuotak ezin du eragozpena izan. Alderantzizkoa ere bai: hiri handi batek sartu nahi baldin badu, dirua ez dadila oztopo izan. Galdetzen du ea helburua ekonomikoa den, ea erabaki honek politikoki eragingo duen.

Getariako ordezkari jaunak 2018an kaudimen pixka batekin aurrera egitea markatu du helburu bezala.

Astigarragako ordezkari jaunak partzuergoan sartu edo ez sartzeko arrazoia ekonomikoa izaten ez dela argitu du, politikoa baizik (sinesten duten, indar korrelazioak ematen duen...).

Mañariko ordezkari jaunaren ustez, sistemarik justuena aurrekontuaren arabera da, baina ez daki arazo teknikorik eman dezakeen. Herri berriei partzuergoan sartzeko proposamena egiterakoan, kuota sistema gutxi gora behera nolakoa izango den argitu beharra zaie, ziurtasun minimo batekin, urtetik urtera aldaketa handiegiak egin gabe.

Atxondoko ordezkariak aurreko urteko aurrekontuaren arabera kalkulatzea proposatzen du, errazteko.



Andoni Gartzia jaunak horrela ere buletinetan begiratu beharko litzatekeela esaten du, kontu-hartzaileek txostena bidali zain egon behar ez izateko. Kudeaketan denbora asko galdu daiteke. Errazena tramuen da, urtetik urtera gutxi aldatzen delako.

Berriatuko ordezkari jaunak haien kasuan hiru proposamenen artean antzeko ordainduko luketela adierazten du.

Mañariko ordezkari jaunak partzuergoak modu horretan 50.000 euro gehiago jasoko lukeela gehitzen du.

Leitzako ordezkari jaunak lehendakari jaunaren eredia eskertu du, bere herriak gehien ordainduko duelako. Galdetzen du nola aurrekontuaren arabera antzeko ordainduko luketen baina, aldiz, tramuen eguneratzearekin ia bikoitza.

Gartzia jaunak herri guztientzako justua izango den proposamenik ez dagoela gogorarazi du.

Hernaniko ordezkaria ere baden lehendakari jaunak beren kasuan, aurrekontuen arabera eginez gero 15.000 eurotik 63.000 eurora igoko litzatekeela zehaztu du, eta gehiegi dela.

Arakaldoko ordezkari jaunak, eztabaidan zehar ikusitakoa eta aurrekontuen sistemak ematen dituen zailtasunak ikusita, tramuen proposamenaren alde egiten duela esan du.

Berriatuko ordezkari jaunak Leitzako ordezkari jaunari erantzun dio, tramuen hasierakoa edo bukaerakoa izatearen artean aldeak daudela esanez.

Lehendakari jaunak 2018ko kuota erabakitzeke eskaera luzatu du, datorren urtean berriro aztertuko bada ere; ordurako, Lapurdi, Zuberoa eta Baxe Nafarroako sistemarekin batera, Nafarroa Garaikoa ere aztertzeke konpromisoa hartzen da.



Bozketa egiten da. Lehenengo aukera (3 euro biztanleko): 0 bozka. Bigarren aukera (aurrekontuko sarrera arrunten %0'25a): 6 herri (Leitza, Goizueta, Arbizu, Mañaria, Areso eta Berastegi). Hirugarren aukera (tramu berriak): 12 herri (Altzo, Arakaldo, Astigarraga, Atxondo, Berriatua, Berrobi, Errigoiti, Hernani, Larrabetzu, Segura eta Usurbil). Abstentzioak: 2 (Getaria eta Alegia).

Hortaz, 2018an tramu berrien proposamena aplikatuko da eta hurrengo urteari begira berriro ere aztertuko da, gaur hitz egindakoa ere kontutan hartuz.

LAUGARRENA.- Batzorde Eragilerako partzuergokideen zazpi batzordekideen aukeraketa:

Lehendakari Jaunak egin du puntu honen azalpena. Partzuergoko zazpi kideak aukeratzea da gaurko bileran egin beharrekoa: Bizkaiko Berriatua eta Arakaldo, Arabako Legutio, Nafarroa Leitza (nahiz eta denboraz aztertu eta gaur aukeratutako ordezkaria alda daitekeen), eta Gipuzkoatik Hernani, Astigarraga eta Usurbil proposatzen dira gaur.

Hurrengo hauteskundera begira, partzuergoko kidea den Udal bakoitzean Udalbiltzako ordezkaria zein izango den pentsatu eta lan banaketan sartzea bilatuko da.

Gaia eztabaidatzerakoan, Leitzako ordezkari jaunak aipatu du denbora gutxiegiarekin proposatu diotela batzordekidea izatea eta, beraz, baiezkoa eman duela baina abenduko kontseilura begira Nafarroako beste herriren bateko ordezkariak ordezkatzeko posible dela.

Ekipoa onartua izan da aho batez.



BOSGARRENA.- Gipuzkoako Foru Aldundia: Egungo egoera.

Luis Intxauspe Lehendakari jaunak egin du puntuaren azalpena. 2015ean Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako 100.000 euroko laguntza epai baten ondorioz itzuli behar izan da. Ekaineko Kontseilu Nagusian azaldu zen nola egiten ari zenez, egungo egoeraren azalpena eta udarak eman duena: Abuztuan 70.000 euro ordaindu zituen partzuergoak eta gainerakoa 2018ko abuztua arte hileroko kuota berdinetan ordainduko du; modu horretan jasaten baitzen komisiorik txikiena. Zati handiena ordainduta dagoenez, morosoen zerrendatik atera da Udaltzako.

Horretaz gain Diputazioaren eta Udaltzako Partzuergoaren artean elkarlanerako hitzarmenik egiteko aukerarik badagoen galdetzen du Segurako ordezkari jaunak.

Lehendakaria jaunak bidea jorratzen ari dela erantzun du, baina batzar orokorra eta gero, prozesuaren ondorioak mahai gainean daudenean, hori aztertzeko instituzio ezberdinekin harremanak egiteko asmoa dagoela esanez.

Lehendakari orde andreak Gipuzkoako Aldundiak besteak beste mugaz gaindiko lanketan interesa agertu zuela gehitu du.

Ez da hitzartze gehiagorik egon.

SEIGARRENA.- Catalunya.

Luis Intxauspe jaunak egin du puntu honen azalpena.

Astelehenean 19'00etan Miramarren hautetsien agerraldia egiteko asmoa dago; aurreko astean Udaltzak medioen aurrean adierazpenak egin zituen eta bertan AMIrekin elkarlanean ari dela eta urriaren 1ean modu batera edo bestera parte hartuko zuela adierazi zuen. Astelehenean galdeketan ikuskari izatera 100 hautetsi doazela eta Udaltzako Partzuergoak prozesua babesten duela esango da. AMIko kide batek parte hartuko du prentsurrekoan.

U-1eko asteburuari begira, larunbatean (urriak 30), 18'00etan AMIk harrera egingo die hautetsiei, nazioarteko gainerako bisitariekin batera. Igandean goizean goiz



15-20 laguneko taldeetan haiek jarritako mikro-busetan mugitzea da plana; mikroautobus bakoitza eskualde batean zehar ibiliaz, arratsaldean berriro ere Bartzelonan zentralizatzeko.

Udalbiltzarentzako asteburu horrek Catalunyaari elkartasuna adierazteaz gain partzuergoari barrura begirako saretze eta kohesiorako ere balio izatea da helburua.

ZAZPIGARRENA.- Herriko Etxeak Partzuergoan sartzea.

Luis Intxauspe jaunak egin du puntu honen azalpena. Herriko Etxe batzuk partzuergokide izateko interesatuta daude. Uztaritze da aurreratuen dagoen proposamena. Oso lotuta dago kuota sistemarekin: finantziario sistema oso ezberdina dute eta Herriko Etxeek ematen dituzten diru-laguntzak 50 eta 300 euro artekoak izaten dira, hortaz, egun dugun kuota sistemarekin sartzea ezinezkoa da. Horregatik, sakonki aztertzen ari gara nola egin daitekeen. Lehenbiziko herriko etxeak abenduan sartzea da helburua.

Astigarragako ordezkari jaunak esan du bi estatutan egonda kualitatiboki salto handia dela eta, horretaz gain, mugaz gaindiko partzuergoa izanda, Europako diru-laguntzak edo antzeko finantziario bide berriak bila litezkeela.

ZORTZIGARRENA.- Pirinioetan Lan eta Bizi.

Luis Intxauspe jaunak egin du puntu honen azalpena. 2014 eta 2015ean egindako programari itxiera egiteko lanean aritu da pertsona bat. Urriaren 5-6 Iratiko basoko etxeetan jardunaldiak daude programak emandakoen balorazioa eta itxiera publikoa egiteko. Laburbilduz, antolaketan arazoak egon izan zirela, baina proiektu batzuek aurrera egin zuten, oro har sentrazioa ona dela azpimarratu du Lehendakari jaunak.

ZORTZIGARRENA.- Galderak eta iradokizunak.



Ez da galderarik egon. Lehendakariak bertaratutakoei eskerrak emanez eman dio amaiera bilerari arratsaldeko 7ak direnean, nik Idazkari bezala ziurtatzen dudalarik.